

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inaxio Zubia Umerez

*Oñati, Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea

Biografia



Olabarrieta auzoko Zelaibarren
baserrian jaioa.

Zintak

ONA-072

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-16
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa - Leturia, Ane

Pasarteak

1. Zelabarren inguruak lokaztuta

- **Erref:** ONA-072/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:00:41. **Bukatu:** 00:02:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>1943ko martxoan jaio zen Iñaxio, Olabarrietako Zelabarren baserrian. Etxe ondoko zerrategia martxan zegoenean, karreteroek etxe inguruak lokatzez betetzen zituzten. Legazpiko Patrizionetik ekarritako zeparekin (eskoria), itxuratu zituzten inguruok.</p>

Transkripzioa

- Hasteko esango dozu zure izena eta abizenak?
- Nere izena Iñaxio Zubia Umerez.
- Eta ze urtetan jaio zifan?
- 1943. urtian.
- Ze egunetan?
- Beratzi, eta hilla martzua.
- Martxuak bederatzi?
- Beratzi.
- Eta hemen bertan jaio zifan?
- Bai, bertan.
- Etxe hontan?
- Bai.
- Orduan Olabarrietakua, eta zela daka izena...?
- Zelaibarren baserría.
- Zelaibarren?
- Esan Zelabarren itten daue baiña.
- Lehenau hau, kamiñua eta hemen, zuk beti ezagutu dozu?
- Bueno, bai, hau lehen ez euen hola, e? Lehenau desberdin zan, hau lehenau oin holako kaltzada bat, lokatzaia, belaunetaraifnoko lokatzaiaikin. Porke hemen asko ibiltten ziran, hemen euen zerria, Nemesio Zubia, hor euen nere osaba Eustakio Zubiak eta beste hirun artian eukein hor zerria, zerra bat egon zan. Gaur edifiziuori Nemesio Zubiak dako. Enda hamen etorten ziren karreteruak tronkuakin honaiñotxe, eta hareik zela ekarten euen lokatzaia, hau dana izaten zan lokatzauna bat garai haretan. Alde batetik sendia eukan, elizbidia, porke elizbidia alde guztietan betik

harrizkua izaten zan, sendia harrizkua inddda, eta albuen burdixak eta ibiltten zirana. Eta hori lokatzaioi kentzeko ekarri zan zeretik, Legazpittik, zera, hau nola da, eskoria. Eskoria da...

- Patrizionetik?
- Patrizionetik.

2. Aitak asmatutakoa

- **Erref:** ONA-072/003
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Zepa, labe garaietako lanaren hondakina, erabili zuten lokatza estaltzeko. Gaur galarazita dago zepa, poluzio arazoengatik. Karreteroek herrestan ekartzen zituzten enborrak errepidea zeharkatzeko; lñaxioren aita arotzak egindako asmakizun bat erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta eskoria horrekin hau kamiona hemen Olabarrietan, Alejo Ugartek ekarri eben kamiona transporterako eta bere interesa zan ba hor bide ona egotia, eta harenakin eskoriakin bota eta hau in zan leheningotik ba sorua ba lokatzaia ezkutau zan han zerien.

- Zer da eskoria?

- Eskoria da, bueno, zuk alto hornuetan funditten dozunian, han etaraten da miñerala eta miñeral horrek eukitten dau ba residuouak, eta han gaiñian geraketan dan nata bezela, zikiña, eta hori zikiñori erabiltten da ba zerien, lehen ipintten ziren, basuetan eta botaten zan. Baiña klaro, gaur prohibiuta dau. Zeatik? Porke horrek dako kontaminantiak, metalak; ez burdiña, burdiña baiño metal okerraguak, metal pesados. Ba izan leike edo plomua edo zinka edo nikela edo, horreik metal pesaduak dira betik zerak, kontaminantiak lurrerako. Enda orduan momentu hontan dago prohibiuta. Eta baiña garai haretan libre zan eta hurringo haretxekin hasi zan, leheningo leheningo hemengo lokatzak kentzen.

- Bai, pistetan eta.

- Pistetan geruau hasi ziren. Hau zan leheningua, baiña oin ze esango dotsut nik, oin ixa 50 urte izango dira hori in zala. Porke hemen gure etxe onduan, kamiñua pasaitteko jarten zan hemen holako tronko haundi bat, enda burdixa pasau ta gero, ze egurrakin pasaitten zanian, atzekaldian jarten otsain karrotxo bat, gure aitta arotza zan, eta gure aittak itten zittun hemengo burdixak eta hemengo lerak eta hemengo... Hori inbentuori zela zan? Bueno ba, tronkuak etorten ziren ba gutxi gorabehera, nik uste dot zortzi bat metro luze edo hamar, eta han pasaitten zanian altura baten tartian huekua eukitten euein, sartzen zan karrua azpizan, eta karrua azpizan sartzen zanian tronkua gaiñetik pasaitten euen bestiak, eta karrua ha tronkua pasaitten zanian karruan gaiñian geraketan zan egurra eta kamiñua markau barik pasau bihar zan bidia, bestekaldera. Eta hori bardin-bardin gertaketan zan, beste ze bat euen Kurtzialden, Kurtzialde da han Aiastui onduen dauen kruzia, mendiko zerak, tronkuak pasau bihar ziran alde batetik bestekaldera, kamiñuan, baiña kamiñuari zerak ez otsan ekutu bihar, tronkuak, zikinddu itten ebelako. Eta inbento horixe erabiltten zan

bide honeittan lokatzaia kendu aurretik. Lokatzaia kendu zanian ba ya, handik aurrera hasi ziran prohibitten hona kamionak, kamionian ekartea bakarrik, porke bestela zikiña etorten zan, basotik eta, porke hemen garai baten karretero asko egozen, karreteruak ibiltten ziran, ba hemen hiru zerra egozen, bat hona tronkuak ekarteko, beste bat Kurtzialdera eta beste bat Artxubira. Eta tronkuakin batera etorten ziren ba lokatzaia, arrastran etorten ziren ta, atzeko partia tartarraz eta aurreko partia gaiñian jarritta ta, orduan horixe izaten zan.

3. Gurdi, lantegi edota baserritik ogibidea

- **Erref:** ONA-072/004
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Karretero asko zeuden garai batean, ogibidez lanean zihardutenak. Beste batzuek lantegietan egiten zuten lan, baina bazeuden oraindik ogibide bakarra baserria zutenak. Bere aitak eraiki zuen etxe ondoko zerrategia, eta gero bertan egin zuen lan.

4. Pezeta bategatik greba

- **Erref:** ONA-072/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Iñaxioren aita baserrietako arotza zen. Gurdi, lera, eta antzeko tresnak egiten edo teilatugintzan jarduten zuen. Iñaxio aitaren laguntzaile ibiltzen zen. Aita Mugarzaren Galdategian lanean zebilela, greba egin zuten lantegian orduko pezeta bat gehiago eskatzeko.

Transkripzioa

- Eta ordutik kanpora arotz itten eben. Arotz ba baserriko burdixak, eta gero arotza bestela be bai, armarixuak eta gauza honeik be itten zittuan. Baiña...
- Arotzegixia nun euken, hemen etxien?
- Hementxe etxian, bertan, bai. Baiña gizon bat izan zan, goizian jaikitten zan, bostak inguruan edo laurak inguran edo bostak inguruan, eta hemen auzo guztia senttitten bere, porra haundi bat, hamar kiloko porriakin, inddarra haundixa eukan, inddarra eukan bueno, bilddurgarriko inddartsua, oso inddartsua, eta hemen egurra goizian goiz, egunsentixan. Denpora gutxi eta lan asko.
- Oseake lehenengo hori egurretan eta gero fabrikara jutun zan?
- Bai, gero, hori etapa, bueno, aurretik ibilli zan fundiziñuan lanian nere aitta. Oñatin oin eztakit, fundiziñua orduan inportantia zan, fundiziñua...

- Nun, Zubillagan?

- Ez, hemen, hori "Mugarza, Ugarte y Compañía" zuan hor zera, fundiziñua esaten gotsana; Garai, fundiziñua eta Ulma.

- Bai, ahaztuta neukan, bai.

- Ba orduan han itten xuein lana. Garai haretako gure aittak esaten xok zela zazpi pezeta egunetik zortzi pezetara huelgia iñ euela. Egunien, osea ordua pezetia zela iñ euein huelgia Garaiñian, edo zerian.

- Eguna pezetia.

- Ez, ez, ez, ordua, orduko pezetia.

- Egunien pezeta bat gehixago.

- Pezeta bat gehixago. Horixe iñ euela. Oso inportantia izan zala huelgiori, aittak, gure aittak esaten ebenetan, bai. Eta bera hemengo baserri guztietako arotza izan zuan bera. Eta ni bere lagun mutikotan. Bere piue.

- Uztarrixak be bai itten zittuan?

- Ez, ez, uztarrixa, uztarrixak itteko beste espezialidadia da, aixkoriakin itten dan lana da. Berak itten zittuan, neu be bai ibilli naiz berakin, hango baserrixak, igual teillatua jaso, edo egur nagusi bat usteldu dalako ordezkua jarri.

5. Lehengo teilatugintza

- **Erref:** ONA-072/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Teilatuak lurrean prestatu behar zirela zioen lñaxioren aitak. Lehenengo zuhaitza mendian aukeratu, etxera ekarri eta landu. Zenbat eta ur gehiago izan teilatuak, zailagoa da eraikitzea.

Transkripzioa

-Eta orduan berak basuen apartaitten eben egurra, zera, haritza, ze haritz, hau edo hau? Eta bueno, orduan ez euen besterik, "a ojo", hauxe. Hartu, bota, eruen etxera, etxe onduen eta etxe onduan aixkora haundi batzuk, gaur be badakogu, izugarritzko aixkorak, pixua. Landu eta...

- Neuk be ikusitta dakot.

- Bai, e?

- Indda ez, baiña ikusitta bai.

- (...)

- (...)

- Lekuan bertan itten zan zera, etxe onduan itten eben, gure aittak esaten ebenetan teillatua montaitteko lurrian, onduen. Egurrak ez ziren hola neurrixa hartu, ez, ez, konstruziño guztia lurrian ifintten eben, goiko tamaiñua eukan lekuan, jarten euen planua edo zera eta han bertan itten euen teillatua, eta gero egurrrak hatu eta jasoten euen gora montaitteko. Leheningo planteau dana behian itten daue. Gure aittak esaten ebena, pasaitten dana da konplikaziñua, teillatuak konplikaziñua ez dako bi urekuak ez dako konplikaziñuak, lau uretakuak dako konplikaziñua, konplikaziñua zeatik? Porke dako media-linea bat, eta media-linea haretan deskantsaitten dau ur danak. Eta berriz baldin badakozu bi poste, ha erdiko poste gaiñian teillatua eustiak, harek konplikaziño asko gehixau dako.

6. Haritz handi bat lurrean

- **Erref:** ONA-072/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Erretako baserriak berreraikitzen ibili zen Iñaxio aitarekin. Oñatin bi Zelabarren baserri daude, biak haritzez inguratuta garai batean. Izugarrizko haritz handia bota behar izan zuten bidea zabaltzeko.

7. Auzoko usadio zaharrak

- **Erref:** ONA-072/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Auzoko plazako zuhaitzak eta beraiek ematen zuten fruitua, zuhaitz horiek landatu zituenarenak ziren. Hala dio Olabarrietako usadio zaharrak auzoko terrenoetan dauden zuhaitzez.</p>

Transkripzioa

- Eta gero bestekaldian egozen intxaurrak, auzoko zerak ifiñittakuak, eta klaro, zerk dako balixo gehixago?
- Hareik gaiñera intxaurrak bentajan eta auzoko...
- Pasaitten dana, norena zanik [...] jabetza, porke intxaurrak, intxaur baikotzak, hor plazan dauzen intxaur baikotzak bere jabia eukan, porke hori asko itten zan lehenau, terreno komunetan sartzen zan arbolia eta han urteten eben frutua zeuretako zan; hori beste iñun ez dozue ikusi, e?
- Entzun be ez.
- Ez, e?
- Oseake auzoko terrenotan...
- Bueno, hemen plazan, hor plazia Olabarrietan, ba plazia hor leku horretan euzen, Errementeriko zerak, Bakaiko hurrak, edo intxaurrak, Errementerikuak, Ozperokuak; honeik Taberna zaharrekuak hor eukein keizak; Muñokuak, gaur Muñokuak ondiok badauz; Urraukua (Urraburukua), Urraukua egongo zan, Urraukua bertan onduan dau, eta han keizen bat seguru; hori haritz haundixori Ximonena zala esaten zan, hor dauen baserrixa. Eta danak eukein arbola horreik jabia, baiña terrenua, garbi egozen, terreno komuna.
- Auzuena.
- Bai. Auzuena. Gero pasaitten da denporiak horreik ba hemen zati bat kendu, beste zati bat kendu, faten da pittin bat txikiketan. Gero bidiak be naseiketan jarten dira eta dana azkenian txikittu itten da.
- Eta orduan, norberak sartutako arboliak emuten euen frutia, norberantzako zan?
- Klaro, bai. Eta betik izanda.

8. Ameriketatik dirua

- **Erref:** ONA-072/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:16:26. **Bukatu:** 00:19:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Flora

Laburpena:

<p>Ameriketatik ekarritako diruarekin egindako bi etxe eder daude auzoan; Arkauztarrek eta Arrazolatarrek eraikitakoak. Arrazolatarrek aspaldi erreka kontran landatutako bi makal erori berri direla dio Inaxiok. Makalok Arrazolatarrenak omen ziren, usadioari jarraituz.</p>

Transkripzioa

- Hainbeste esango dostat /esangostat/. Zeian, hor Arrazola azpitan, honek Arrazolakuak Ameriketatik ekarri xuen diru asko ta hor in xuen txaleta, Arrazolakuak. Hor bi etxe... Olabartan dauen etxe polittena, neretako beti pentsau xat izen leikiela Ameriketatik ekarritako diruakin einddako etxia. Oso... kategorixakua dok. Bat dok Arrazola apellidua dakona ta bestia dok Arkauz. Arrazolako horreik, Arkauz hori hemengo apellidua ez dok. Porke Arkauz hori e... zeretik etorri zuan...
- Araba aldetik?
- Ez. Zela dittuk honeik, Arkauz... Gero hor... zera baxaukiek ba, honeik e... baserrixak... zea indda, hotelak indda, ruralak, hotel ruralak, Arkauztarrak.

Zela [...] baserrixak izena? Kauen la puñeta, ez xat /etxat/ etorten. Handik, handik etorritako apellidua dok.

- Ojalaterua ez zuan Arkauz? E... San Anton kalekoa, zela esaten xako... Bere alabia, okulistia.

- Hor Arkauz okulistia xauk, bai.

- Horrek Arkauz dittuk.

- Baiña honeik dittuk... Joe, nunguak dittuk baserrixa, famosoi... Zera, bi etxe ruralak dakoiña zerian, San Juanen, San Juan auzuan.

- A!

- Kauen la letxe, ez nok /enok/ akordaitten ta. Bueno, hortik etorritakua dok hori, Arkauz horrek. Enda, bueno, gero hau berau ezkondu zuan, Arkauz apellidua honek eukan ta ya apelliduak horkuak kanbixau in dittuk Arrazolak. Baiña horreik dittuk etxiak e... Ta horreik behian, erreka kontran, ipiñi xuain, etaraik kontuak, zer eta... —kauen, ez xatak etorriko, hau goorra dok!— e... Palilluak itteko ze ibiltten dok? txopuak. Ta txopuak ointxe jausi dittuk bi. Ba horreik txopo horreik Arrazolakuak dila esaten xuein . Porke, karo, guk hemen txopuak, ba, hemen txopoik ez xauk / etxauk/! Begiratu itten badok /ittenbok/ hemen ez xauk /etxauk/ txopoik, alde batetik gaitzak hondaketan dauelako, ta izugarriko bi txopo, bat ointxe bi urte o jausi zuan, ta bestia ointxe jausi dok, haiziak apurtu ditzuk. Haik be betik fulanonak dittuk.

- Baiña auzuen terrenuan eozenak?

- Bai. Bai. Eta betik guk... hala esaten xuein: "Hi, ba, honeik hareiñak dia". Oseake esan gura xuat gauzak zela dauzen, ta errespetau itten zuan. Zeatik izango zuan hori...

9. Auzotasuna berreskuratu nahian

- **Erref:** ONA-072/011
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Elkartea gastronomikoak

Laburpena:

<p>Auzotasuna bultzatu nahian, eskola nazional zaharraren eraikina egokitu zuten auzoko emakumeek arrosarioa errezatu ostean elkartzeko leku bat eduki zezaten. Geroago auzoetxe edo elkarte edo antzeko zerbaiteko terreno bila hasi ziren.</p>

Transkripzioa

- Erabagi in xuei soziedadia ittia, auzuen.

- Bai, egonda nago.

- Eta auzoko soziedadia zela zuan? Ba hor zazaken andra batzuk, zera faten zittuan, errosarixora, eta errosarixua zera inda gero etxera faten zittuan. Enda harendako lehen eskolak kristalak eta dana apurtuta, abandonauta. Zer egin? Aiuntamentura fan eta aiuntamientuak ez xuan dirurik emuten, eta auzoko diru apurrakin erabagi gixun kristalak ifiñi. Orduan kristalak ipiñitta, gero kalefaziñua falta. Fabrikan zerak erosi xuan, Cegasak Planchas edifizua, onduan xauan plantxak itten euen, eta han xazaken kalefaziño batzuk txatarretara botateko modura. Hareik recuperau eta hor ifiñi xuau emakumiendako lokala; eta neguen epel-epeletan.

- Errosarixua errezaitteko.

- Errosarixua errezau ta gero, jokuan itteko, jokuan itteko. Enda klaro, hori jokuan itteko zeatik urteten xuan? Faten gitzuan gu Eara beraniaittera, eta hango emakumiak egunero jokuan taberna onduan, eta hemen berriz guk ez xakuagu ohitturarik. Castillan ikusten dok emakumiak atetan jokuan eta ez dakit zela... hemen ez gintzuan juntaitten, baikotza bere munduan, danak aparte bizi gitzuan, ezkiñakuan hori, batu ze... batera bizittia ezkiñakuan.

- Auzoko anbientia, ezta?

- Galduta euen guztiz. Bueno, horretxekin hasi gitzuan eta andrak gustora. Epela, jokuan itteko lekua eta bueno, orduan sortu xazaken auzotik beste idea bat. Ze in bihar xuau? Hemen soziedadia, soziedadia in bihar dogula. Soziedadia itteko hasi gitzuan ba terrenua topaitten, baiña terrenua iñork soltaittia gura ez, porke terrenua itteko zerien edifikaziñua bolumen haundixa bihar.

10. Auzo-elkartea eskola zaharrean

- **Erref:** ONA-072/012
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:28:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Nahiz eta eraikinaren jabetasuna Ministerioaena izan, auzo-elkartea eskola zaharrean egitea erabaki zuten azkenean. Ekintza honek auzotar asko elkartu eta auzotasuna berpiztu zuen.

Transkripzioa

- Halako baten behin entzun nixuan egozela soziedadiak inddda eskolatan, "ya está", eskolatan baldin badagoz soziedadiak geuk be baitta, geuk be hor xakuagu lokala, geuk be baitta.

- Hori soziedadia dauena, lehengo eskolia da?

- Eskola bi, eskolak zittuan horreik, mutikuen...

- Eta hor gero androk jokuan itten euela eta...

- Hortxe, hortxe. Enda hor giñakuan hori lokalori eta hauxe in bihar xuagu, soziedadia in bihar xuagu. Zela? Eta ba neri esan dostai zerian, Lazkaomendin, beste bat Lasturren eta beste bat, ha zela zuan? Amezketa hor bixen gaiñian, mendi baten beste bat dauela. Nungua zuan ha? Ez nauk akordaitten ze herri zan. Han euela soziedadiak inddda. Bueno, domeka baten hartu xuat nere andria, nere anaia, nere primua, fan gaittuk horreik ikustera. Lazkaomendin sarri egonda, Lazkao Txiki ekarten giñuan Olabarrietara betik bertsolari bezala eta bere etxera askotan fanda. Nik ordurako kotxia baiñuan ta, bere etxera askotan fanda, eta Lazkaomendira fan gaittuk domeka arratsalde baten enda juntaitten gaittuk han eta ikusten xuagu soziedadiori. Faten gaittuk preguntaitten bai baiña ha soziedadia eskolia izandakua baiña diputaziñuana. Hori berriz zeana...

- Udaletxiana.

- Ez, Madrilgua. Eskola honeik Madrilgo zerak in (zi)txuan ta.

- Nazionalak.

- Nazionalak. Enda hurringu bestera fan gaittuk eta hareik be igual. Han be informaziñua hartu giñuan eta handik Lasturrera. Lasturrera aillegaitten gaittuk eta edifizio bardiña, Olabarrietako modukua. Garbixa. "Ya está",

hau soziedadia badok, hau harrapota xauk. Faten gaittuk harutz ta, ez, hemen ez dau soziedadia, hau lokal hau erabiltten da auzoko fiestetan bakarrik, bestela ez.

- Taberna moduan.

- Taberna moduan. Frakasua! Nik aiuntamientuan nakuan, fabrikan lana itten neben piletan eta, han euen Santi Kortabarria konzejal urte askuan egon zuan eta harekin batera hau, Ubaokua uste xuat dala Kortabarria. Harekin amistade haundixakin eta ha konzejal, nik hori ittia gura. Nik esaten nitxan "obria in..." ta, "Hau guria ez da, hau ezin leike in, hau Madrilkua da, Madrilen permisua eskatu bihar da". Nik esaten nitxan: "Ba hau ez daue eruengo Madridera, hau hemen geratuko da. Etorri daixela eruatera!" Eta zela? Beste posibilidadade danak gastau zittuan, Olabarrieta guztia apurtuta geure artien, ta berba itten hasi gitzuan eta gauziak urten xuan aurrera. Barru dana hustu, soziedadia in zuan, lokal soziala alde baten, ta aiuntamientuak ba zela itten zan soziedadia auzo guztiendako, ez bakarrik batzuendako ezbai auzo guztiendako.

- Auzo etxia modura.

- Eta orduan ba hola in giñuan, baiña jakiñien gaiñian, jakiñien gaiñian, baiña jakiñien gaiñian guria ez zala iñoiz izango. Baiña nik esaten nuan: "Iñok ez xok hau eruango hemendik! Etorri daixela eruatera madriltarrak!" Ba holaxe in giñuan soziedadia. Eta horrek in oskun bateratu, horrek in oskun izugarriko zera. Auzotarrak juntau in giñan. Bueno, orduen ba baozen batzuk eta ez ziren sartu, gero sartu dira, kontra egozenak ez zittuan sartu. Baiña nehikua kopuru zera juntau gitzuan ta... hori diskusiñuori betik sortzen dok, eztabaidak alde guztietan.

11. Auzotartasuna indartuta

- **Erref:** ONA-072/013
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Elkartea antolatu eta gero beste ekimen batzuk sortu ziren. Auzo batzorde bat eratu eta ekimenok gauzatzen joan ziren. Auzoko bideak auzolanean konpondu ziren, eliza eraberritu, posta banaketa bideratu, maioralen lana ezarri, etab. Orain auzotarrak elkartuago bizi dira.

Transkripzioa

- Enda horrek emun oskun inddarra, ba, beste inziatiba asko jarteko. Ta, ba, horrekin batera etorri zuan, ba, eliziai erretillia ittia, ta orduan eliziai erretillia in zan. Ta, karo, eliziak be diruik ez! Betikua! Elizia hotza, ta zela berotu, ta joe... Aiuntamientuak txakur txikirik be ez xuan /etxuan/ iñoiz emuten. Ta zela? zela? Ba nunbait hor [desetxue] euzen butanozko zeak, botillak erosi ta harexek zela edo hala berotu ta jo, jentia gustora. Hi! Etorri orduko epel, epel, epela elizia be. Zerakin, butanuakin berotuta. Beti zittuan, ba, detalliak beti martxan. Ta orduan jarri [...] komisiño bat. Komisiñuak zittuan lehendik zian alkate zaharrak, neu... handik asko gehixau ez gitzuan. Baiña hemen beheko alkatia, goiko alkatia eta, ba, ni be komisiñuan, ta... Bueno, ni gaztia nitzan. Bueno gaztia... Bai, nahikua gaztia. Ta holaxe hasi giñan bueltaka. Ta horrekin batera, ba, elizia gero erabagi zan barriztaittia. Jo, elizan igual hamabi milloi pezeta gastau zian

barriztaitten, e! Hori bat bakarrik! Ta inguruko bidiak? Hemengo pareta guztiak [in giñuzen], hemen dauzen pareta guztiak auzolanian, danak! Dana auzolanian itten zan. Dana dispuesto. Aiuntamientuak materiala ipiñi, eta jentiak lan. Horrek emun otsan izugarriko bueltia auzuari. Jo! Ta harrezkero hemengo gerrak pasau zian.

- Dotore dakazue auzua.

- Hemengo gerrak pasau zittuan. Enda oin...

- Ze itten dauen batasunak, e?

- Bai.

- Eta alkartasunak.

- Eta alkartasun horrek. Karo, [...] sortzen hasi zuan. Kotxian, oin trikitx ez giñuan eitten iñoiz bata bestia. Kotxian `pi!´, "se acabó". Aldekuakin ikusi be ez, ixa iñoiz be ez, kapitaletan modura. Eta, bilddurrezkua da, e? Ez pentsau, e? Asuntua.

- Tristia.

- Tristia, tristia. Garai haretan, ba, por ejemplo, erabagi giñuan, auzua zuan goiko auzua ta beheko auzua. Bi alkate. Bi maioral. Ta karo, bi maioral azkenian maioral bat. Orduan, e, gero pentsau giñun, bueno... ba joe, abixuak emuteko, entierruak euenian abixuak emuteko, jentia fabrikari lanian, nok emun? Etxian ez dau /eztau/ iñor, ta zela? Bueno, orduan izentaitten giñuan, ba, diru bat ipiñi urtero pagaitteko ta abixua in daixela batek. Beste burruka bat haundixa izan zan hemen korreuekin. Korreua, ba, repartiu in bihar zala /bizala/. Korreua kalia... Hemen euen bat... Tabernakua zuan lana itten ebena korreosetan. Ta honek beonek ekarri ta hemen repartituen oskuna, hemen euen bittartian. Baiña hil zanian, ba, ya geratu giñan reparto barik. Ta zeekuak Madrildik autorizaziñorik ez hemen partituko. Kartak zela? Ba kalia, ipiñitta referentziak, ba, familiakuetan, etxetan izteko. Orduan esan [...] "Bueno, hola ez. Zela ingo dou /ingu/?" Ba, korreosetakuak zera in daixela, repartua in daixela enda posta kutxa kostaitten dan beste, hainbeste, ba, etxera entregaittaren. Baiña, karo, hori prohibiu eitten [etxen]. Ezin xuein in hori. Enda hor ibili gitzuan beste epoka bat, bueno... burruka osua konsegituko hori. Bueno, azkenian behintzet motorizaitten hasi zanian kamiño kontra zera ingo dogula, repartua ingo dogula /ingoula/. Orduan, ba, kamiño-bidetan, bide-kurtzetan ipiñi jakak -ta oin be holaxe xaozak, ezta leku batzutan- ta bidien motorizautako lekuetan zera ittie. Klaro, gurua ya hasi zien... repartua etxetara itten, hurrekuetan repartua itten. Ta, bueno, karo, guretako kamiño onduan, guretako oso ondo. Ta bastante neurri hartu eben ta, bat hor goixan goiko plazan, beste bat hor enparantza onduan, beste bat hor kasetatan, jarri zittuen katxarruak eta... ba nahiko konforme. Harrazkero ya urte askuan ibili gara konforme. Ta egun praktikamente ixa etxetara alleaitten da. Ya oin hori be, ba, "otra batalla superada".

12. Auzolana bizirik

- **Erref:** ONA-072/014
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoko bideak ere auzolanean hormigoitu zituzten. Auzolanak bizirik dirau oraindik.

Transkripzioa

- Por ejemplo... Beste gauza bat zeekua, hormigoia botatia. Joe, hori zuan, baiña bilddurgarriko tema bat, e? Karo, Bizkain, ni udan Bizkain egoten nitzuan, ta Bizkaiko baserri danak enbreauta. Ta Gipuzkuakuak ezebez.
- Lehengo bide zaharrak.
- Lehengo bide zaharrak. Joe... Nik honei, Xanti ta honei politikuai esaten [notsen], "Joe, hi! Ya está bien. Horrek danak xarek enbreauta eta guk, zer? Guk ezebez? Gure zea...? Gu betik "ciudadanos de tercera" izan bihar xuau /bixu/? E? Pagaitteko orduan terrenua guk xakuu, guk pagau. Eta guk bidia, akzesua eukitteko guretako ez xauk /etxauk/ dirurik, ta kalia baxauk dirua, ta guretako bapez! Gu beti [mouan]?. Ta beti burruka baten ibiltten gitzuan, beti. Joe... Izaten zuan bilddurgarriko burrukia. Baiña azkenian aiuntamentuek soluziñua betikua, "al cincuenta por cien", guk materiala ta zuek lana. Enda uste xuat Oñatiko auzo danetan formula hoixe erabilli dala. Bai, formula hoixe erabilli dok. Bueno, niretako formula tranpa bat zuan, baiña beste bideik ez xauan /etxauan/. Porke oin esaten dan modura, egixa badok hiru mila ta hamar kilometro hormigoizko bidia indda baldin bazazek, horrek diru asko balixo eben, e? Materiala bakarrik pagauta. E? Enda aiuntamentuei, hola, auzolanien basarritarrak asko in xok. Asko, e! Zeatik izan dok? Nik uste xuat baserritarra [beti ohittuta xauk lana eittera] ta...
- Auzolana betik izan da ohitturia.
- Bai, bai, bai.
- Oindiok be bide baztarrak garbiketan ta holakuetan itten da.
- Guk itten xuu, guk itten xuu, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com